# 2019KO UZTAILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

# ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE JULIO DEL 2019

**Akta zenbakia: 10**/2019
**Bilera eguna**: 2019-07-11
**Bilera mota:** ohikoa
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordua:** 08:30-08:45
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº: 10**/2019
**Fecha**: 11-07-2019
**Tipo de reunión**: ordinaria
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 08:30-08:45
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:**
Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**
Jorge Segurado Iriondo
Luke Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara de Miguel Berasategui

**Idazkaria:**
Mateo Habibi Astigarraga López

**Reunidos:**

**Alcalde:**
Mikel Pagola Tolosa

**Concejales:**
Jorge Segurado Iriondo
Luke Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara de Miguel Berasategui

**Secretario:**
Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2019ko uztailaren 11ean, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 8:30ean, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ohiko bilera egiteko.

En la villa de Urnieta a 11 de julio del 2019, siendo las 8:30 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión ordinaria.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

## GAI ZERRENDA

**1.- Tokiko Gobernu Batzarraren aldikotasunaren egutegia onartzea.**

**2.- AIU 32 Babilonia eremuko Plan Partzialari hasierako onarpena ematea.**

**3.- 5. Poligonoko 249 lursailean, Adarrazpi ustiapenari atxikitako famila bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko obra handi baimena. 2018HOMA0010 exptea.**

**4.- Ergoien Industrialdeko 805 zenbakian. (erreferentzia katastrala: 81 87 058) ibilgailuentzat GLP hornigailu bat instalatzeko jardueraren aldaketarako baimena ematea. 2016HCLA0002 exptea.**

**5.- Bestelakoak.**

## ORDEN DEL DÍA

**1.- Aprobación del calendario de sesiones de la Junta de Gobierno Local.**

**2.- Aprobar inicialmente el Plan Parcial AIU 32 Babilonia.**

**3.- Conceder licencia de obra mayor para la construcción de una vivienda unifamiliar en la parcela 249 el polígono 5, vinculada a la explotación Adarrazpi. Expte. 2018HOMA0010.**

**4.- Modificación de licencia de actividad clasificada para la instalación de un surtidor de GLP para vehículos en la finca situada en Zona Industrial Ergoien nº 805. Expte. 2016HCLA0002.**

**5.- Otros.**

| | |
|---|---|
| <u>Mikel Pagola alkateak</u> informatzen du 2019-2023ko toki agintaldirako Tokiko Gobernu Batzarra eratua geratu dela bere kide guztiekin. | <u>El alcalde Mikel Pagola</u> informa que queda constituída la nueva Junta de Gobierno Local para el mandato local 2019-2023 con todos sus miembros. |
| **1.- Tokiko Gobernu Batzarraren aldikotasunaren egutegia onartzea.** | **1.- Aprobación del calendario de sesiones de la Junta de Gobierno Local.** |
| <u>Mikel Pagola alkateak</u> dio abuztuan ez dela ohiko Tokiko Gobernu Batzarrik egingo. | <u>El alcalde Mikel Pagola</u> dice que durante el mes de agosto no se convocará ninguna reunión ordinaria de la Junta de Gobierno Local. |
| Ikusita 2019ko uztailaren 8ko alkatetzaren proposamena. | Vista la propuesta de alcaldía de fecha 8 de julio del 2019. |
| Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak aho bateko adostasunarekin honako hau | Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad adopta el siguiente |
| **<u>ERABAKITZEN DU</u>** | **<u>ACUERDO</u>** |
| **<u>Lehena eta bakarra</u>.-** Tokiko Gobernu Batzarraren ohiko bilkurak hamabost egunean behin ostegunean 8:30etan egitea, salbu jaieguna baldin bada. | **<u>Primero y único.-</u>** Celebrar las sesiones ordinarias de la Junta de Gobierno una vez cada 15 días, los jueves a las 8:30 horas, salvo en día festivo. |
| Azken kasu honetan aurreko lanegunean egingo da, salbu alkateak arrazoituta beste egun baterako deialdia egiten duenean. | En este último caso se celebrará el anterior día laborable salvo que el Alcalde por causas debidamente motivadas decida convocarlo otro día. |
| **2.- AIU 32 Babilonia eremuko Plan Partzialari hasierako onarpena ematea.** | **2.- Aprobar inicialmente el Plan Parcial AIU 32 Babilonia.** |
| <u>Mikel Pagola alkateak</u> puntua aurkeztu ostean, TGBeko kideei hitza ematen die. | El alcalde Mikel Pagola tras presentar este puntu, concede la palabra a los miembros de esta Junta de Gobierno Local. |
| <u>Ainara de Miguel EH-Bildu udal taldearen bozeramaileak</u> hartzen du hitza adierazteko asteleheneko Lurraldeko batzordean jasotako informazioaren arabera, proiektu hau Urnietako herriak izango duen proiekturik potoloenetako bat izango dela. Eragin handia izango duela etorkizunean Urnietako herritarrentzat orokorrean, bai gazteentzako bai helduentzako. Horregatik, ondo aztertu beharreko proiektu bat dela. Dokumentazioa aztertzeko izan duten | Toma la palabra <u>Ainara de Miguel portavoz del grupo municipal EH-Bildu</u> para manifestar que en base a la información recibida en la comisión de Territorio del lunes, este proyecto será uno de los proyectos más importantes que se desarrollarán en Urnieta. Y que tendrá una gran influencia sobre el futuro de todos los y las urnietarras, tanto jóvenes como mayores. Por ello, entienden que es un proyecto que hay que analizar con detenimiento. Añade que en el |

epean, 54. orrian ezartzen den baldintzatako bat ez dela bete dio, hau da, proiektua orohar herritar guztiei aurkeztea. Bestalde, proiektu honek suposatuko duen ondorioen arabera, bere ustez erabakiak hartzeko eta arduraz parte hartzeko emandako epeak ez direla nahikoak adierazten du. Beraien lana Udal honetan arduraz hasi nahi dutela gehitzen du, zintzo eta koherente esaten dutenarekin, ondorioz egun abstentzioa izango dela beraien posizionamendua, baina irekita daudela azterketarako eta biharko egunean dauketen ilusioarekin jarraitzeko Babilonia proiektu honekin.

tiempo que han tenido para estudiar el proyecto, se han dado cuenta hoy que no se ha cumplido lo dispuesto en la página 54 "… se presentará el proyecto a todos los ciudadanos en general". Por otro lado, en base a las consecuencias que va a tener este proyecto, señala que en su opinión los plazos concedidos para tomar decisiones con responsabilidad no han sido suficientes. Que quieren empezar su trabajo en este ayuntamiento con responsabilidad, lealtad y coherencia. Por todo ello, su posicionamiento en este punto va a ser hoy de abstención, pero que están dispuestos al estudio de este proyecto de Babiloni así como a continuar trabajando con ilusión en el mismo.

******

*******

Ikusirik Urnietako HAPOko AIU 32 BABILONIA eremuko Plan Partzialaren dokumentua, Uslan SL enpresako ordezkaria den Jon Uranga arkitektoak eta Natxo Izeta abokatuak idatzitakoa, Plan Orokorrak mugatutako AIU 32 BABILONIA eremuko lurzoru urbanizagarriko sektorearen antolamendu xehatua ezartzeko, eta hori tramitatzeko eta onartzeko, eta ikusirik hori Euskal Herriko hirigintza-legedira egokitzearen inguruan horri buruz idatzitako txosten teknikoa eta juridikoa -horren eduki formala eta dokumentala Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 67. eta 68. artikuluetan xedatutakora egokitzen da-.

Visto el documento de Plan Parcial del AIU 32 BABILONIA del PGOU de Urnieta, redactado por los arquitectos Jon Uranga, representante de Uslan SL y Xabier Arraztio y el abogado Natxo Izeta, con el objeto de establecer la ordenación pormenorizada del sector de suelo urbanizable AIU 32 BABILONIA delimitado por el plan general, y a efectos de su tramitación y aprobación, y vistos los informes técnico y jurídico al respecto sobre su adecuación al objeto y funciones previstas en la legislación urbanística del País Vasco, y cuyo contenido formal y documental se ajusta a lo establecido en los artículos 67 y 68 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Ikusirik, halaber, espedientean jasota dagoela ingurumen-txosten estrategikoaren txostenaren 2019ko ekainaren 11ko Ebazpena, Ingurumen kontuetan eskumena duen Sailaren menpeko organoak egindakoa eta 2019ko ekainaren 17an Udalari jakinarazitakoa, zeinaren bitartez adierazten baita planak ez duela eragin nabarmenik ingurumenaren gainean.

Visto, asimismo, que en el expediente consta Resolución de informe ambiental estratégico de fecha 11 de junio de 2019, emitida por el órgano ambiental dependiente del Departamento competente en materia de medio ambiente, notificada al Ayuntamiento en fecha 17 de junio de 2019, por la que se considera que el plan no tiene efectos significativos sobre el medio ambiente.

Ikusirik Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j artikuluaren arabera Planaren hasierako onarpena Alkateari dagokiola eta 2019ko ekainaren 25eko 618/2019. Dekretuaren bidez honek Tokiko Gobernu Batzarraren esku utzi zuela hasierako onarpen hori.

Visto que de conformidad con el artículo 21.1.j) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la aprobación inicial del Plan corresponde al Alcalde y que mediante Decreto nº 618/2019, de 25 de junio de 2019, este delegó dicha aprobación inicial en la Junta de Gobierno Local.

Ikusirik 2019ko uztailaren 8ko Lurraldeko Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Territorio celebrada el 8 de julio del 2019.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta, Alkateak gaia bozketara jartzen du honako emaitzarekin

Realizada la tramitación legalmente exigida, el Alcalde somete el asunto a votación con el siguiente resultado

Alde: 4. (Urnietako Eusko Abertzaleak)

A favor: 4. (Urnietako Eusko Abertzaleak)

Kontra: 0.

En contra: 0.

Abstentzioak: 1 (Urnietako EH Bildu).

Abstenciones: 1. (Urnietako EH Bildu).

Tokiko Gobernu Batzarrak legez ezartzen den gehiengoarekin honako hau

La Junta de Gobierno Local con la mayoría legal requerida adopta el siguiente

**ERABAKIA:**

**ACUERDO:**

**Lehena.-** Hasierako onarpena ematea Urnietako A.I.U.32 “Babilonia” eremuko Plan Partzialari, udal teknikarien txostenetan ezarritako baldintzekin.

**Primero.-** Aprobar inicialmente el Plan Parcial del A.I.U.32 “Babilonia” del PGOU de Urnieta, con las condiciones señaladas en los informes de los servicios técnicos municipales.

**Bigarrena-.** Espedientea hogei egunez jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Lurralde Historikoan hedapen gehien duen egunkari batean argitaratuko diren ediktuen bidez, eta azken argitalpenetik kontatzen hasita.

**Segundo**.- Someter el expediente a trámite de información pública por plazo de veinte días, mediante edictos que se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los periódicos de mayor difusión del Territorio Histórico, y a contar a partir de la última publicación.

Epe horretan, espedientea ikusgai egongo da Idazkaritzako Bulegoetan, jendaurreko arreta-ordutegian, 8:00etatik 14:00etara hain zuzen ere.

Durante dicho plazo el expediente estará de manifiesto en las Oficinas de Secretaría, en horario de atención al público de 8:00 a 14:00 horas.

**Hirugarrena-.** Urtebetean, ez ematea inolako onarpen, baimen eta lizentziarik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 85. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lege horren 22.1 artikuluak xedatzen duenaren kalterik gabe.

**Tercero.-** Suspender el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias, conforme a lo dispuesto en el artículo 85 de de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, por el plazo de un año, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 22.1 de dicha Ley.

Etendura berez iraungiko da ezarritako gehienezko epea amaitzen denean, edo, izapidetzen ari den planari behin betiko onespena epea amaitu baino lehen ematen bazaio, ematen zaion unean.

La suspensión se extinguirá por el mero transcurso del plazo máximo para el que haya sido adoptada y, en todo caso, con la aprobación definitiva del plan en tramitación, si ésta fuera anterior.

**3.- 5. Poligonoko 249 lursailean, Adarrazpi ustiapenari atxikitako famila bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko obra handi baimena. 2018HOMA0010 exptea.**

Ikusita 2018ko urriaren 17an [redacted], [redacted] [redacted]) eta [redacted] ([redacted]) izenean 2018/2712 udal honetako sarrera erregistroan aurkeztutako eskaera, non Goiburu Auzoan 33C dagoen Adarrazpi ustiategiari lotuta etxebizitza bat eraikitzeko obra lizentzia eskaera egiten zuten.

Ikusirik HAPO-aren xedapenak betetzen direla eta ikusirik 2019ko martxoaren 25eko Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentuaren aldeko erabakia, 5. Poligonoko 249 lursailean, Adarrazpi ustiapenari atxikitako famila bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko,

Ikusirik 2019ko uztailaren 8ko Lurraldeko Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak aho bateko adostasunarekin honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**Lehena:**

[redacted] 5. Poligonoko 249 lursailean, Adarrazpi ustiapenari atxikitako famila bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko obra handi lizentzia ematea.

Aurreikusitako materialki gauzatzeko aurrekontua 138.000 eurokoa da.

**Bigarrena:**

BALDINTZA PARTIKULARRAK

Obra hasi aurretik ondoko baldintzak betetzen dituen ikusonetsitako exekuzio proiektua aurkeztu beharko da.

**3.- Conceder licencia de obra mayor para la construcción de una vivienda unifamiliar en la parcela 249 el polígono 5, vinculada a la explotación Adarrazpi. Expte. 2018HOMA0010.**

Vista la solicitud presentada en el registro de entrada de este ayuntamiento el 17 de octubre del 2018 (2018/2712) por [redacted] en representación de [redacted]) y [redacted]), a través de la cual solicitaban licencia de obra para la construcción de una vivienda vinculada a la explotación agraria denominada “Adarrazpi” sita en el Barrio Goiburu 33C.

Teniendo en cuenta que se cumplen las disposiciones del PGOU, y vista la resolución favorable de 25 de marzo de 2019, del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la construcción de una vivienda unifamiliar en la parcela 249 el polígono 5, vinculada a la explotación Adarrazpi,

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Territorio celebrada el 8 de julio del 2019.

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad adopta el siguiente

**ACUERDO**

**Primero:**

Conceder a [redacted] licencia de obra mayor para la construcción de una vivienda unifamiliar en la parcela 249 el polígono 5, vinculada a la explotación Adarrazpi.

El presupuesto de Ejecución Material previsto asciende a 138.000 euros.

**Segundo:**

CONDICIONES PARTICULARES

Previamente al comienzo de la obra deberá presentarse proyecto de ejecución visado que cumpla las siguientes condiciones

| | |
|---|---|
| Eraikinari dagokionez: | En cuanto al edificio: |
| - Gipuzkoako foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentuaren txostenean adierazitakoa beteko da:<br>*…etxebizitza eraikinak, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, 31. Artikuluaren 3. Atalak xedatzen duen bezala, Lotura jarraitua eta etengabea izango du, gutxienez, 25 urteko epean "Adarrazpi" nekazaritzako ustiategiko nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerari dagokionez. Horregatik, Udal baimena lortuz gero, gutxienez bere jabetzako lursail erregistratuak (5-054, 5-249, 5-266, 6-024) baimendutako etxebizitzari lotuta egon beharko lukete hirigintzari eta erregistroari dagokionez aipatutako epe horretan.* | - Se cumplirá lo indicado en el informe del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa:<br>*…el edificio de vivienda, tal como establece el apartado 3º del artículo 31 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, quedará vinculado de manera continua e ininterrumpida durante el plazo mínimo de 25 años al uso agrícola-ganadero de la explotación agraria "Adarrazpi". Por ello, en caso de obtener la licencia municipal, al menos las fincas registrales de su propiedad (5-054, 5-249, 5-266, 6-024) deberían quedar urbanística y registralmente vinculadas a la vivienda autorizada para el citado plazo.* |
| - HAPoren 90. Artikuluak dionez, etxebizitza hau ustiapenaren titularren ohiko etxebizitza izango da. | - En base a lo establecido en el artículo 90 del PGOU, el destino de la vivienda será el de vivienda habitual del titular o cotitular de la explotación agraria. |
| - Teilatu-hegalek egurrezkoak izan edo egurrez estalita egon beharko dute. | - Los aleros deberán ser de madera, o estarán revestidos con madera. |
| - Ez da zehazten nola ilunduko diren leihoak. Pertsiana biribilgarririk ezin dela jarri gogorarazten da. | - No se define como se realizará el oscurecimiento de las ventanas. Se recuerda que no podrán instalarse persianas enrollables. |
| Obrak hasi baino lehen: | Antes del comienzo de la obra: |
| - Obra zuzendaritza teknikoa izendatu beharko da (arkitektoa eta arkitekto teknikoa). | - Deberá nombrar Director de Obras a Técnico competente (Arquitecto y Aparejador). |
| - Obra hasteko epea gehienez 6 hilabetekoa izango da baimenaren jakinarazpena jasotzen den unetik hasita eta 2 urte baino lehen amaitu beharko da. | - El plazo de inicio de la obra será como máximo de 6 meses desde la recepción de la notificación de la licencia, y se deberá finalizar antes de los 2 años. |
| Obrak bukatu eta gero: | Al finalizar las obras: |
| - Obra Amaierako Ziurtagiria aurkeztuko du, obra zuzendariak sinatua eta dagokion elkargoak onetsia.<br>- Sortutako hondakinen kudeaketa egokia ziurtatzeko, hondakinak eta eraikuntza materialak sortzen dituen pertsonak amaierako txostena ekarri beharko du, 112/2012 dekretuko III. eranskinarekin bat etorriz.<br>Txosten hau derrigorrez aurkeztu behar izango da bermea itzultzeko. | - Presentará el Certificado Fin de Obra firmado por el directo de la obra y visado por su Colegio correspondiente.<br>- A fin de acreditar la correcta gestión de los residuos generados, la persona productora de los residuos y materiales de construcción deberá aportar un informa final, de acuerdo al anexo III del Decreto 112/2012.<br>Será necesario aportar este informe, para que pueda procederse a la devolución de la fianza. |

**Hirugarrena:**

HONDAKINAK

- Espresuki debekatzen da obrako materialak edo zakarrak zuzenean zolan uztea, masak eta mortairuak prestatzea etab.

- Debekatuta dago obretako zakarrak baimendu gabeko zabortegietan uztea.

- 112/2012 dekretuak araututako obra izanik, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena, eraispenean sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko helburuarekin, hondakin horien kudeaketaren % 120ko bermea jarri beharko da, hau da, 4.140 euro.

**Tercero:**

RESIDUOS

- Se prohíbe expresamente depositar materiales de obra o escombros, directamente en el pavimento, así como preparar masas, morteros, etc.
- Se prohíbe depositar los escombros procedentes de las obras en vertederos no autorizados.
- Al tratarse de una obra regulada por el Decreto 112/2012, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, con el fin de garantizar la adecuada gestión de los residuos generados en la demolición se deberá imponer una fianza del 120% del coste de la gestión de dichos residuos, es decir, 4.140 euros.

**Laugarrena:**

BALDINTZA OROKORRAK

- Baimen honek bakar-bakarrik balio du eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioan aurrekontu eta guzti adierazitako obrak egiteko.
- Espazio publiko urbanizatuetara eta eraikinetara iristeko eta horiek erabiltzeko ahalmen urritasuna duten pertsonen irisgarritasuna bermatzeko eta bereizkeria saihesteko oinarrizko baldintzak onartzen dituen apirilaren 20ko 505/2007 Errege Dekretuak xedatutakoa bete beharko dute, baita irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/97 Legean eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan xedatutakoa ere, hiri inguruen, gune publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

**Cuarto:**

CONDICIONES GENERALES

- La presente licencia ampara exclusivamente a las obras que se presupuestan y relacionan en la documentación presentada y correspondiente a la solicitud realizada.
- Deberán cumplir lo establecido en el R.D. 505/2007 de 20 de abril por el que se aprueban las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados y edificaciones, así como lo establecido en la Ley 20/97 de 4 de Diciembre para la promoción de la accesibilidad y lo establecido en el Decreto 68/2000 de 11 de abril por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

**Bosgarrena:**

SEGURTASUNEKO NEURRIAK

- Obra egiterakoan oinezkoen segurtasuna kontuan hartuko da, behar izanez gero hesiak jarriz.
- Obrek iraun bitartean, indarrean dauden segurtasun neurriak hartuko dira, bertan lanean ari diren langileak eta oinezkoak babesteko. Beraz, bide publikoa beharrezko neurri osagarriekin babestuko da (oholtza aldamiozko pasabide-moduluak, hesiak, baliza zintak, sareak, biserak

**Quinto:**

MEDIDAS DE SEGURIDAD

- Al efectuar la obra, se tendrá en cuenta la seguridad de las posibles viandantes, colocando vallas si fuera necesario.
- Se adoptará, mientras duren las obras, las vigentes medidas de seguridad para la protección de operarios que en ellas intervienen, así como de los viandantes. En éste sentido se protegerá la vía pública mediante los medios auxiliares que fueran precisos (módulos de paso

eta abar), oinezkoen segurtasuna eta zirkulazioa bermatzeko moduan, fatxadako hondakinak irits daitezkeen eremu osoan. Neurri hauek gutxienez 1,5 metro bete utzi beharko dute oinezkoak pasa daitezen.

de andamios con entablados, vallados, cintas balizadoras, redes, viseras, etc.) que garanticen la seguridad del tránsito peatonal y rodado en todo el tramo susceptible de recibir desprendimientos desde la fachada. Estos deberán permitir un paso de peatones de una anchura mínima de 1,5 metros.

**Seigarrena:**

ZARATAK

Lanen ordutegiari dagokionez, zaraten eta bibrazioen igorpena arautzen duen Udal ordenantzak ezartzen duena bete beharko da, ondorioz, lanak ezingo dira 22:00etatik 08:00etara eta jaiegunetan egun osoan zehar burutu. Etxe barruko lanetarako, neurri zuzentzaile egokiak hartuko dira zarata edo bibrazioengatik auzokoentzat sor daitezkeen eragozpenak gutxitzeko.

**Sexto:**

RUIDOS

En cuanto al horario de los trabajos, se deberá cumplir lo establecido en la Ordenanza Municipal de Emisión de Ruidos y Vibraciones, por lo que los trabajos no podrán ejecutarse entre las 22 y las 8 horas, y los días festivos en su totalidad. Para los trabajos en el interior de las viviendas se adoptarán las medidas correctoras oportunas para minimizar las molestias que por ruido y/o vibraciones se puedan generar en el vecindario.

**Zazpigarrena:**

Baldin eta obra egiteko beharrezkoa bada laguntza bitartekoak jartzea, al nola, aldamioak, edukiontziak edo horrelakoak, eta horiek bide publikora begira edo bide publikoa okupatuz jartzen badira Ibi Publikoaren Okupaziorako Baimena eskatu beharko du eta udaltzainekin harremanetan jarri beharko da honen kokapena zehazteko. Kasu horretan hondakinak tolba bidez bideratu beharko dira.

**Septimo:**

Si para la ejecución de la obra fuera preciso el empleo de medios auxiliares como andamios, contenedor o cualquier otro elemento auxiliar y los mismos están orientados u ocupando la vía pública, deberá solicitar Licencia de Ocupación de Vía Pública y ponerse en contacto con la Policía Municipal para concretar la ubicación. En ese caso los residuos tendría que sacarlos a través de un tubo.

**Zortzigarrena:**

Baimen honek obraren lekuan egon beharko du, honek irauten duen bitartean, eta Udaltzaingoaren edo Udal Zerbitzu Teknikoen eskura jarriko da, hauek eskatzen dutenean.

**Octavo:**

Indicar que esta autorización deberá estar en el lugar de emplazamiento de la obra, durante el transcurso de la misma, a disposición de la Policía Local o de los Servicios Técnicos Municipales cuando éstos la requieran.

**Bederatzigarrena:**

Kontu-hartzailetza zerbitzuak dagokion zerga likida dezala, hala badagokio.

**Noveno:**

Que por los servicios de Intervención, en su caso, se proceda a la liquidación del tributo que corresponda.

**Hamargarrena:**

Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, eta erabaki honen berri Hirigintza eta Kontu hartzailetza sailei ematea.

**Décimo:**

Notificar este acuerdo a la persona interesada y trasladar el mismo a los departamentos de Urbanismo e Intervención.

**4.- Ergoien Industrialdeko 805 zenbakian. (erreferentzia katastrala: 81 87 058) ibilgailuentzat GLP hornigailu bat instalatzeko jardueraren aldaketarako baimena ematea. 2016HCLA0002 exptea.**

Ikusita 2018ko irailaren 6ean [redacted], Disa Peninsula, S.L.U. (B84070937) enpresaren izenean 2018/2301 udal honetan aurkeztutako eskaera, non ibilgailuentzat GLP hornigailu bat instalatzeko jardueraren aldaketarako baimena eskatzen duen.

Kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren txostenak ondorioztatzen duela "ibilgailuentzako GLP hornigailua jartzeak" ez duela aldatzen, aurretik, 2017ko irailaren 27an emandako lizentzia, eta kontuan hartuta emakida-ebazpenean arestian aipatutako baldintzetan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak finkatutako baldintzetan jarduera-lizentzia aldatzearen (2016HCLA0002) aldeko txostena egin dela.

Ikusirik 2019ko uztailaren 8ko Lurraldeko Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak aho bateko adostasunarekin honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**Lehenengoa:**
[redacted] Disa Peninsula, S.L.U. (B84070937) enpresaren izenean, Ergoien Industrialdeko 805 zenbakian. (erreferentzia katastrala: 81 87 058) ibilgailuentzat GLP hornigailu bat instalatzeko sailkatutako jardueraren aldaketarako baimena ematea.

**4.- Modificación de licencia de actividad clasificada para la instalación de un surtidor de GLP para vehículos en la finca situada en Zona Industrial Ergoien nº 805. Expte. 2016HCLA0002.**

Visto el escrito presentado en este ayuntamiento por [redacted] en representación de Disa Peninsula, S.L.U. (B84070937) de fecha 6 de septiembre del 2018, nº registro de entrada 2018/2301, solicitando la modificación de Licencia de Actividad para instalar un surtidor de GLP para vehículos.

Teniendo en cuenta que el informe del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda de Gobierno Vasco concluye que la "instalación del surtidor GLP para vehículos" no implica ninguna modificación respecto a la licencia concedida con anterioridad con fecha de 27 de septiembre de 2017 y se informa favorablemente a la modificación de la licencia de actividad con las condiciones expuestas anteriormente en la resolución de concesión (2016HCLA0002) y las condiciones impuestas por el departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda de Gobierno Vasco.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Territorio celebrada el 8 de julio del 2019.

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad adopta el siguiente

**ACUERDO**

**Primero:**
Conceder a [redacted], en representación de Disa Peninsula, S.L.U. (B84070937), la modificación de licencia de actividad clasificada para la instalación de un surtidor de GLP para vehículos en la finca situada en Zona Industrial Ergoien nº 805 (con referencia catastral: 81 87 058).

**Bigarrena:**
Erakunde tekniko eskudunek emandako aplikazio orokorreko arau espezifikoei egokituko zaie.

UDAL BALDINTZAK

ZARATA

- Egoitzazko hiri-lurzoruan hurbilen dauden etxebizitzetan 8etatik eta 22etatik aurrera zarata ezin izango da 40 eta 30 dB(A) baino handiagoa izan, hurrenez hurren, Leq. 60 segundoko zarata-maila baliokidean, ezta 45 eta 35 dB(A) gehienezko balioetan. Era berean, ondoko jardueretan ezingo dira 60 dB(A)-ak gainditu.
- Urriaren 16ko 13/2012 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa, F taularen arabera zarataren baliorik handienak ezingo ditu 55dB-ak gainditu hurbilen dauden eraikinen fatxadetan.
- Inguruko pabiloi edo lokalen egiturei bibrazioak transmititzea eragozteko, beharrezkoa den makinetan, dagozkien bibrazioen kontrako elementuak jarriko dira.

AIREZTAPENA

- Jardueraren aireztapena ingurukoak molestatu gabe egingo da, beraz, ezin da aireztapena, behar izanez gero, ateekin egin.

UREN KUTSADURA PREBENITZEA

- Ur-hidrokarburatuei dagozkien isuri likidoak besterik ez dira egingo eta hauek saneamendu sarera joango dira euri-urekin eta komunetako urekin kontakturik izan gabe eta dagokien garbiketa tratamendua egingo zaie Urumeako kolektorea kudeatzen duen Añarbeko mankomunitateak ezarritakoa betez.
- Arriskutsu bezala sailkatutako hondakinak sortuko balira (mozketetatik eratorritako fluidoak, disolbagarriak, pinturak eta abar), behar bezala baimenduta dauden hondakinak kudeatzen dituzten enpresek kendu beharko dituzte otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuak eta uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, eta gainerako legeek xedatutakoa betez.

**Segundo:**
Deberá ajustarse a las normas específicas de aplicación general dictadas por los Organismos Técnicos competentes.

CONDICIONES MUNICIPALES

RUIDO

- No se sobrepasarán los 40 y 30 dB(A) a partir de las 8 y 22 horas respectivamente en las viviendas más próximas de suelo urbano residencial en nivel continuo equivalente Leq. En 60 seg. Ni los 45 y 35 dB(A) en valores máximos. Así mismo no se sobrepasarán los 60 dB(A) en las actividades contiguas.
- Según la tabla F del decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el valor máximo de ruido no podrá superar los 55 dB en fachadas de edificios colindantes.
- Con objeto de evitar la transmisión de vibraciones a la estructura de las naves o locales próximos, en aquella maquinaria que lo precise, se dotará de elementos antivibratorios adecuados.

VENTILACIÓN

- La ventilación de la actividad se realizará sin producir molestias a los colindantes y por tanto no se puede confiar la ventilación, si fuera necesaria, a las puertas.

PREVENCIÓN DE POLUCIÓN DE AGUAS

- No existirán más vertidos líquidos que los correspondientes a las aguas hidrocarburadas, que se dirigirán a la red de saneamiento sin entrar en contacto con las aguas pluviales no contaminadas y previo tratamiento adecuado de depuración y a los servicios de los aseos, los cuales se ajustarán a lo establecido por la Mancomunidad de Aguas del Añarbe que gestiona el Colector del Urumea.
- Los residuos clasificados como peligrosos (fluidos de corte, disolventes, pinturas, etc.) caso de generarse, deberán retirarse por empresas gestoras de residuos, debidamente autorizadas y de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto 110/2015 de 20 de febrero, la Ley 22/2011, de 28 de julio, de Residuos y demás normativa concordante.

HONDAKIN SOLIDOAK

